



Izenburua	GAZTEEN ERABILERAREN KORAPILOA BEGI-BISTAN
Egileak	Asier Basurto (Soziolinguistika Klusterra) Jaime Altuna (Urtxintxa Eskola) Sonia Perez (Topagunea, Euskara Elkarten Federazioa)
Data	2010/04/22

aurkibidea

aurkibidea.....	2
1. Sarrera.....	2
2. Aurrekariak.....	3
3. Definizioa.....	4
1. Aztergaia.....	4
2. Helburuak.....	4
3. Bideak.....	5
4. Emaitzak.....	7
1. Faktoreen eskema.....	7
2. Faktoreak eta azpi-aktoreak.....	8
3. Ondorio orokorrak.....	11
5. Azken oharra.....	12

1. Sarrera

Gazteen hizkuntza-erabileraren fenomenoak, gizarte-fenomeno guztiak bezala, nahasia eta konplexua da. Ez da erraza izaten hizkuntza-erabilera era batekoa edo bestekoa izatean gertatzen dena azaltzen eta ezta ulertzen ere. Azken finean, hizkuntza-erabilera artilezko mataza bat bezalakoa da. Elkar korapilatutako hari askok osatzen dute mataza bakarra, baina zaila izaten da hari horiek zenbat diren eta bakoitza non hasi eta bukatzen den ikustea. Zaila izaten da, era berean, korapiloa askatzea hari bakarrari heldu eta bertatik tiraka hasiz gero. Biderik onena, hari bat baino gehiagori helduz saiatzea da, bakoitzari nondik tira behar zaion ongi pentsatu ondoren.

Hain zuzen ere, hausnarketa horren antzeko batetik abiatu zen *Gazteen erabileraren eragiten duten faktoreen azterketa*. Gazteen erabileraren korapiloa bere osotasun eta konplexutasunean ikusteko moduren bat eskaintzea asmoak gidatu du proiektua; korapiloa osatzen duten hariak identifikatu eta bakoitzari nondik heldu erabakitzerakoan lagungarri izan dadin.

2. Aurrekariak

Soziolinguistika Klusterrean gazteen hizkuntza-erabilerari buruzko lan-ildoak martxan zegoen *Gazteen erabilera: perspektiba eta prospektiba* proiektua abiatu zenetik. Proiektu-taldean, Soziolinguistika Klusterra (koordinatzaile lanetan) eta bere bazkide diren Urtxintxa Eskola eta Topagunea Euskara Elkartearen Federazioa elkartu ziren. 2006 eta 2007 urteetan zehar garatutako egitasmo honen helburua, gazteen erabileraren inguruan Euskal Herrian egindakoaren bilketa eta azterketatik abiatuta, aurrera begirako beharrak eta erronka garrantzitsuenak identifikatzea zen. Gazteen hizkuntza-erabilerarekin lotutako ikerketa, argitalpen, kanpaina eta bestelako ehundaka egitasmoren berri jaso zen datu-base batean. Datu-basean bildutakoaren ezaugarriak aztertuz, aurrera begira bete beharreko hutsuneen eta egiteke leudeken lanen inguruan hausnartu zen. Aurrera begirako beharren artean zegoen gazteen erabilera sustatzen dutenentzat edo erabilera hori kontuan hartuz dihardutenentzat baliagarria izango litzatekeen oinarri teoriko eta metodologikoen sorrera. Izan ere, aztertutako egitasmo asko intuizio eta usteen gainean eraikitako hipotesiek gidatuta burutzen zirela ondorioztatu zen. Hipotesi horiek bizipenen eta esperientzien ondorio izanagatik oinarri baliagarria izan daitezkeela ahaztu gabe, partekatutako hausnarketa egitea eta kontrastatutako oinarri komuna eraikitzea komenigarri ikusi zen.

3. Definizioa

1. Aztergaia

Gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreen azterketa proiektuaren helburuak zehaztu ziren, beraz, aurrez egindako lanetik. Baina horretara heltzeko, “gazteen hizkuntza-erabilera” gai zabala zedarritu beharra ikusi zen.

Lehenik eta behin, gazte bezala sailkatzen den gizarte-sektorea proiektu honetan zein muge barruan kokatuko litzatekeen zehaztu zen. Aztertuko zena 12 eta 30 urte bitarteko pertsonen hizkuntza-erabilera izango zela adostu zen. Haurtzarora, nerabezarora, gaztarora eta helduarora kontzeptuen muge inguruko eztabaidetan sartzea saihestuz, eta tresnaren baliagarritasun ahalik eta handienari begira, tarte hori definizio nahiko zabala zelakoan egin zen hautu hau.


Erabilera zeri deituko zitzaion edo zein erabilerari erreparatuko zitzaion adostu zen jarraian. Azterketa gazteek eremu ez-formaletan duten hizkuntza-erabilerari buruzkoa izango zela erabaki zen, arau espliziturik ez dagoen eta inori men egin beharrik ez dagoen testuinguruan ematen den erabilerari buruzkoa, hain zuzen ere.

2. Helburuak

Proiektuaren helburua gazteen hizkuntza-erabileran eragiten duten faktoreak laburbiltzen dituen azterketa-eredu bat sortzea izan da. Eredu horrek, begi-bistan jarri behar zituen faktore guzti hauek, erabileraren aurrean kokatzerakoan denak kontuan hartu ahal izateko.

Emaitzak zenbait ezaugarri zehatz izatea ezinbestekotzat ikusten zen. Alde batetik, Euskal Herrian topa litezkeen testuinguru ezberdin guztietarako baliagarria izango zen eredu bat izan behar zen. Bertan agertzen diren faktoreak euskararen lurralde osoan egon behar ziren presente, nahiz eta testuinguru bakoitzean bere ezaugarri bereziak eduki eta norabide batean edo bestean eragin.

Beste alde batetik, garbi zegoen azken helburua tresna praktikoa bat sortzea zela. Azterketa honek eman behar zuen eredia egunerokotasunean erabili ahal izateko modukoa izan behar zen eta gaiari buruzko ezagutza akademiko berezirik izan gabe ulertzeko modukoa. Uneoro presente izan beharreko baldintza zen haur eta gazteekin lanean diharduen jende gehienarentzat erabilgarria izan zedin ziurtatzea.




3. Bideak

Elkar gurutzatzen diren faktore guzti horiek identifikatu, deskribatu eta antolatzeko oinarria hausnarketa partekatua izatea adostu zen. Erabilera eta bertan eragiten duten faktoreak ulertzeko ikuspegi asko daude. Ziurrenik, pertsona bakoitzak ikuspegi ezberdina izango du sakonki begiratuz gero. Horregatik, gaia hobekien ezagutzen dutenen ikuspegiak elkarrekin gurutzatuta eredu bakarra osatzea erabaki zen. Azterketan beste pertsona batzuk parte hartu izan balute, eredia ez litzateke guztiz berdina izango ziurrenik. Horregatik, hausnarketa partekatuan parte hartu behar zuen taldea anitza eta kualifikatua izatea izan da ereduaren baliagarritasunaren bermea.

Alde batetik, gazteekin lanean esperientziadun jendea eta gaia maila teorikoan landu duena bildu genuen lan-talde batean. Taldeko kide batzuen profilak hizkuntza-erabileraren gaiarekin lotuagoak zeuden, beste batzuenak berriz, gazteen gaiarekin, orokorrean. Gazte-komunikabideetatik, ikastoletatik, unibertsitatetik, aisialdi-taldeetatik, publizitate-mundutik, administrazioetatik eta euskara-elkarteetatik heldutako adituak zeuden taldean.

- Helena Baraibar (Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa)
- Eneko Barberena (Txatxilipurdi Elkarte)
- Jon Mikel Fernandez (Xirika Gazte Kazeta)
- Pello Jauregi (EHU-Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila)
- Joana Mendiburu (HARMAN Komunikazio Zerbitzuak)
- Olatz Zabaleta (Arangurengo Udala-Euskara Zerbitzua)
- Sonia Perez (Topagunea-Gazteen Saila)
- Asier Basurto (Soziolinguistika Klusterra)

Baina, horiez gain, ezinbestekotzat jo zen gazteen ikuspegia jaso eta baliatzea azterketa-eredua sortzerakoan. Horregatik, gaiarekiko interesari, testuinguru soziolinguistikoari eta adinari dagokionez profil ezberdineko gazte-taldeek ere parte hartu dute hausnarketa honetan, bakoitzak bere ikuspegia emanez. Guztira 6 gazte-talderekin egin ziren talde-hausnarketak bideratzeko tailerrak.



4. Emaitzak

1. Faktoreen eskema

Hausnarketa partekatuaren emaitza nagusia gazteen erabileran eragiten duten faktoreen azterketa-eredua da. Bertan faktore horiek guztiak biltzen dira era ordenatuan. Orden hori emateko hiru mailako eskema bat erabili da. Eskema hori osatzeko, Iñaki Martínez de Luna soziologoak egindako “Euskal Herriko gaztetxoek hizkuntza egoera aztertzeko eredu orokorraren proposamena”¹ erabili zen oinarritzat. Bertan hizkuntza erabilera aztertzerakoan kontuan hartu behar diren aldagaiak honela antolatzea proposatzen du:

MAILA MAKROSOZIALA: Gizarte-mailan kokatzen diren aldagaiak daude bertan; hiztun guztientzat berdinak direnak.

MAILA MIKROSOZIALA: Ingurune hurbilean kokatzen diren aldagaiak daude bertan; hiztun bakoitza murgilduta dagoen harreman-sareetako bakoitzaren ezaugarriak dira.

MAILA INDIBIDUALA: Hiztun bakoitzaren ezaugarri pertsonalak dira; norbanako bakoitzarengan ezberdinak izan daitezkeen aldagaiak.



¹ Martínez de Luna, I. (2001). “Euskal Herriko gaztetxoek hizkuntza egoera aztertzeko eredu orokorraren proposamena”. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 40: 47-66.

2. Faktoreak eta azpi-aktoreak

Azterketa-ereduaren hasierako planteamendutik, erabileraren fenomeno lausoa eta konplexua era simple batean irudikatzearen beharra mahai gainean izan da. Horregatik, hamaika faktoretan laburbildu dira adituen eta gazteen hausnarketetan erabilerarekin lotuta aipatutako aldagai guztiak. Hala eta guztiz ere, nahitaezkoa ikusi da faktore bakoitzaren barruan biltzen denari gertuagotik erreparatzea. Alde batetik, emaitzetan hausnarketan zehar ateratako aldagaien aipamen kopuru handiagoa islatzeko. Eta bestetik, faktorea bera nondik nora definitu den ulertzen lagungarri gerta dadin.

Hona beraz, gazteen hizkuntza-erabilera eragiten duten hamaika faktoreak eta bakoitzaren barnean biltzen diren azpi-aktoreak:

► KONTSUMO ESKAINTZA (PRODUKTUAK ETA ZERBITZUAK)

- Euskarazko produktu-eskaintza
- Euskarazko zerbitzu-eskaintza
- Euskararen erabilera sustatzera bideratutako produktu, zerbitzu eta jarduerak

► INPUT MEDIATIKOAK

- Publizitatea/marketing-a
- Hedabideak eta kultura-kontsumoa
- Informazio- eta komunikazio-teknologiak (IKTak)
- Moda eta joerak

► TESTUINGURU POLITIKOA

- Marko legala (hizkuntzaren estatus legala)
- Instituzioen hizkuntzarekiko jokaera
- Beste erakundeen hizkuntzarekiko jokaera (alderdiak, gizarte-mugimenduak, elkarteak,...)

► PERTSONA ETA TALDE ERREFERENTEAK

- Gizartean erreferentzia diren pertsonen jokaera (famatuak, prestigiodunak, agintariak, kirol edo ikuskizunaren munduko idoloak,...)
- Ingurune hurbileko erreferentziazko pertsonen jokaera (familiakoak, irakasleak, aisialdiko begiraleak, herriko gazteak, lagunak, lagun-taldeko liderrak,...)

▶ HARREMAN-SAREETAKO HIZKUNTZA ARAUAK ETA OHITURAK

- Erabilera-esparruetako arau eta ohiturak
 - Lagunak / Koadrila / Bikotea
 - Lantokia / Ikasketa-tokia
 - Antolatutako aisialdia / Kirola
- Norbanakoa eta taldearen arteko elkarreragina

▶ HIZKUNTZAREKIKO GIZARTE-PERTZEPZIOA

- Euskaldunaren irudia (hiztunei lotutako baloreak, aurreiritziak,...)
- Euskararen irudia
 - Hizkuntzaren berezko balio sinbolikoa
 - Hizkuntzaren berezko balio instrumentala

▶ EGOERA SOZIOLINGUISTIKOAREKIKO GIZARTE-PERTZEPZIOA

- Euskararen bilakaera historikoari buruzko pertzepzioa
- Euskararen egungo egoera soziolinguistikoari buruzko pertzepzioa
- Euskararen etorkizunari buruzko pertzepzioa
- Euskararen erabileraren aurrean dauden jokaera eta jarreren pertzepzioa. Hizkuntza gatazkarekiko hurbiltasuna.

▶ HIZKUNTZA GAITASUNA

- Norberaren gaitasuna
 - Oinarrizko hizkuntza-gaitasunaren jabetza
 - Gaitasun erlatiboa (elebitasun orekatua/desorekatua)
 - Euskararekiko komunikaziorako erosotasuna (hizkuntza naturala, adierazkorra,... sortzeko gaitasuna)
- Inguruko hizkuntza-gaitasuna (hiztunen arteko gaitasun oreka / desoreka)

▶ IDENTITATE KOLEKTIBOAK

- Familia, koadrila eta inguruko taldeekiko kidesun-sentimendua
- Herria, eskualdea, lurraldea, nazioa, eta kulturarekiko kidesun-sentimendua
- Euskal hiztunen taldearekiko kidesun-sentimendua

► JARRERA ETA PORTAERAK

- Hizkuntzarekiko jarrerak (lotsa, harrotasuna, koherentzia nahia, axolagabetasuna,...)
- Hizkuntzarekiko portaera

► HAURTZAROKO HIZKUNTZA INGURUNEA

- Familian bizitako hizkuntza-errealitatea (ama-hizkuntza, ezagutza, erabilera, pertzepzioa,...)
- Eskola bizitako hizkuntza-errealitatea (ezagutza, erabilera, pertzepzioa,...)
- Auzoan bizitako hizkuntza-errealitatea

3. Ondorio orokorrak

Aztertutako guztiak, faktoreak antolatzeko eskema eman du, baina horrez gain, zenbait ondorio orokor agerian uzti ditu:

- Gazteen eremu informaleko hizkuntza-erabilera gizarte-**fenomeno konplexua** da; Errealitate hori ulertzeari eta esku hartzeari begira funtsezkoa da **konplexutasun hori uneoro presente** izatea, sinplifikazioaren arriskuaz jabetzea eta, ahal den neurrian, saihestea.

Azterketan parte hartu duten aditu eta gazteek argi izan dute hizkuntzaren erabileran elkar korapilatutako faktore ugari eragiten dutela. Zaila da faktore baten eragina non hasi eta bukatzen den mugatzea, baina, aldi berean, ezinbestekoa da hurbilpen bat egiten saiatzea.

- Gazteek eta adituek identifikatzen dituzten faktoreak **orokorrean oso antzekoak** dira. Egindako hausnarketa guztietan agertu diren faktore guztiak berdinak ez badira ere, elkarren arteko aldeak puntualak izan dira eta komunean agertu diren elementuak, berriz, asko.
- Gazte-talde bakoitzak fenomenoak berak bizi duenaren arabera ulertzen du. Adituei hausnarketa burutzerakoan Euskal Herriko testuinguru ezberdinak kontuan edukitzeko eskatu zitzaie eta hala jardun zuten. Gazteen kasuan, aldiz, **bakoitzaren testuingurua orokortua eta bakarra izango balitz bezala** hitz egiteko joera sumatu da. Zaila egin zaie, kasu batzuetan, beste gazteen lekuan jartzea, hizkuntzaren gaia bizitzeko eta ulertzeko era ezberdina duten gazteen lekuan, hain zuzen. Azterketaren emaitzari eskatzen diogun ezaugarri bat ezinbesteko dela berresteko balio izan digu: sortutako azterketa-eredua orokorra eta, aldi berean, egokigarri izateko asmoz sortu da.
- Hizkuntza-erabileran eragiten duten faktoreak sailkatzerakoan, gazteen artean **maila indibidualerako joera** nagusitu da nabarmen. Adituek baino faktore gehiago kokatu dituzte maila horretan. Hizkuntza erabilera hautu pertsonal soila bezala ulertzeko joera egon liteke honen atzean.
- Badira faktoreen eskematik kanpo geratu arren, hausnarketa-prozesuan behin eta berriz presente egon diren kontzeptuak. Berriazko azalpena behar dutelakoan gaude:

- Adina: Faktoreen azterketako partaideek etengabe aipatu izan dute, erabileraren baldintzatzaile gisa. Proiektu-taldeak, hala ere, azterketa-ereduaren eskematik kanpo uztea erabaki du. Izan ere, gazteen adin-taldearen barruan (12-30 urte) erabilerarekiko jokaerak denboran zehar aldakortasuna azaldu dezaketela eta azaltzen dutela ulertu arren, aldakortasun hau eskeman bildutako faktoreen baldintzak aldatzearekin lotzen da. Adinean gora egin ahala identitateak, gaitasunak, pertzepzioak, erreferenteak, harremanak eta abar aldatzen direla, alegia.
- Ingurunea: Gazteen artean *ingurunea* sarritan aipatu izan da erabileran eragiten duen faktore bezala. Hala ere, kontzeptu horrek bere barnean elementu asko biltzen dituela deritzogu. Hain zuzen ere, azterketan zehar faktoreak antolatzeke erabili den eskeman, hiru maila nagusietako bati maila mikrosoziala edo ingurune hurbilekoa deitu zaio. Azterketaren emaitzan zerrendatutako faktoreak elkarrekin parekatu ahal izateko, inguruneak erabileran duen eragina xehatu beharra eta ingurunearen barruko faktoreak identifikatu beharra ikusi da.
- Aipamen berezia merezi dute gazteek nabarmendutako harreman-sare nagusiek. 12 eta 30 urteko gazteen hizkuntza-erabileran, hiru sare aipatu izan dira bereziki. Lehenik eta behin, familia edo etxeko harremanak. Bigarrenik, ikasketa prozesua edo jarduera profesionalarekin lotutako erlazioak. Eta azkenik, berdinaren arteko harremanak leudeke. Hauen artean, bikotekidea, koadrila eta bestelako lagunak bereizi beharra dezentetan aipatu da izan ere, multzo bat osatu arren, hiru azpitalde hauek erabileran izan dezaketen eraginaren intentsitatea eta zentzua ezberdina izan daiteke.

5. Azken oharra

Proiektuaren definizioaren atalean azaldu bezala, bi ezaugarri nagusi eskatun zaizkio hasieratik azterketatik lotu nahi zen ereduari:

Euskal Herrian topa litezkeen testuinguru ezberdin guztietarako baliagarria izatea.

Haur eta gazteekin lanean diharduen jende gehienarentzat erabilgarria izatea.

Hartzailearentzat erabilgarri izatearen irizpidea emaitzak prestatzerakoan gogoan izan bada ere, erabilgarritasun hori ziurtatzeko azken garapen bat egiteke dagoela deritzo proiektu-taldeak. Horregatik, aurrera begira, azterketaren emaitzen aplikazio zuzenerako azalpen didaktikoak eta proposamenak lantzea izango da proiektu honetan aritutako lan-taldearen hurrengo egitasmoa; nolabait esateko, txosten tekniko bat izan dena erabiltzaile izango direnentzat egokitzea.

Udaltop lan-topaketa batzuk izan nahi dute. Helburu hori lortzen laguntzeko, ponentziak eskura jarri dira topaketak egin aurretik, nahikoa denbora izan dezan teknikari bakoitzak irakurtzeko, lantzeko eta hizlariari egingo lizkiokeen galderak prestatzeko. Jardunaldietan bertan, jadanik irakurriak egongo diren hitzaldiei adina tarte eman nahi zaie elkarrizketarako eta hausnarketarako tarteei.

Idatzi hemen zure galdera (ez ahaztu web gunetik bideratu behar duzula).

Galdera:

Azalpena:



SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA - Martin Ugalde Kultur Parkea z/g · 20140 Andoain (Gipuzkoa)

T: _ (+34) 943 592 556 · F: _ (+34) 943 304 151

asier@soziolinguistika.org · soziolinguistika@urtxintxa.org · gazteak@topagunea.com

www.soziolinguistika.org/gazteak